



Argitaratze-data: 2019/04/03

ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2019 Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA ENTREGATZEA

OHAR OSO GARRANTZITSUA:

Aukera-berdintasuna bermatze aldera, epaimahaiak ikusten badu programazio didaktikoak ez duela betetzen 7.1.2.1 oinarriaren seigarren paragrafoan ezarrita dagoen betekizun formala –hau da, gutxienez 40 folio eta gehienez 60 izatea, DIN-A4 formatuan eta alde bakarretik idatzita, eta gutxienez 9 unitate didaktiko biltzea–, **BIGARREN PROBAREN A ZATIAREN KALIFIKAZIOA 0 PUNTU IZANGO DA.**

Entregatzeko epea:

2019ko maiatzaren 2tik 14ra arte, biak barne (azken egunetara arte ez itxarotea gomendatzen da).

Nortzuek entregatu behar dute:


Txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzen dutenek, baldin eta:

- hautaketa-prozesuan onartuak badaude.
- hautaketa-prozesuan baztertuak badaude, baldin eta gora jotzeko errekurtsioa jarri badute, eta ebatzi gabe badago.

Entregatzeko era:

ON LINE entregatuko dira, Internet helbide honen bidez:

<http://www.irakasle.eus> * («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» -> «Norberari egokitutako kontsultak eta PDren entrega».

(* **Oharra:** Web-orri honek hainbat nabegatzailetan behar bezala funtzionatu arren, **Mozilla Firefox**  erabiltzea gomendatzen da aurrez zehaztutako nabigatzaile moduan.



Jarraitu beharreko pausuak, aipatutako helbidean sartu ondoren:

1º) Klik egin «Eskabide zbk-PDren entrega» atalean agertzen den eskaera-zenbakian. Espezialitate bat baino gehiagorako eskabidea bete bada, kasu bakoitzean dagokion espezialitateko eskaera-zenbakia aukeratu beharko da.

2º) Entregatu, pantailaren argibideen arabera.

3º) Ordezlagiria inprimatu; ordezlagiri horretan identifikatzeko NANA eta eskaera-zenbakia agertuko dira, eta dokumentua zein datan eta orduan entregatu den ere bai.

Formatu elektronikoak:

- Microsoft Office 2016 edo aurrekoren bat.
- Libre Office 6 edo aurrekoren bat.
- Portable Document Format fitxategiak (PDF).

OHARRAK:

- **Espezialitate berberarentzako programazio didaktiko bat baino gehiago entregatuz gero, aurkeztutako azkena besterik ez da kontuan hartuko, erregistratutako data eta entregatzeko orduaren arabera.**
- Programazio didaktikoa entregatu ondoren, entregatutako dokumentua **BISTARATZEA** gomendatzen da, entregatu nahi den dokumentua dela ziurtatzeko.
- **Programazio didaktikoa egiteko eta entregatzeko baldintzak deialdiaren 7.1.2.1.A), 7.3.1 eta 7.4.1.2. oinarrietan ezartzen dira.**